



ALKIZAKO UDALA

**UDALBATZARRAK 2024ko ABENDUAREN 10EAN EGINDAKO EZ
OHIKO BILKURAREN AKTA**

2024ko abenduaren 10ean, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19:00etan, Inaki Irazabalbeitia Fernandez Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA :
ZINEGOTZIAK :

Inaki Irazabalbeitia Fernandez
Jose M^a Aranzabe Urruzola
Unai Sorarrain Urruzola
Ana Agesta Echecolonea
Nagore Arizeta Garmendia
Gillermo Jesus Otegi Zubillaga

IDAZKARIA:


Ane Gomez Urteaga

.../...

1. Alkizako herritarrei Euskara ikastaroak burutzeko diru-laguntzaren oinarrien onespena, hala bada.
2. Tolosako Hiltegi Mankomunatuari 2023 urteari dagokion ekarpena onartu eta burutzea.
3. 2024/2025 ikasturtean, Alkizan, "Adinekoentzako ongizate fisiko, mental eta emozional ikastaroak" eskaintzeko zerbitzua emateko esleipena, hala bada.
4. 2024/2025 ikasturtean, Alkizan, Trikitixa eta pandero ikastaroak eskaintzeko zerbitzua emateko esleipena, hala bada.
5. 2024/2025 ikasturtean, Alkizan, pilateseko ikastaroak eskaintzeko zerbitzua emateko esleipena, hala bada.

.../...

LEHENENGO PUNTUA

ALKIZAKO HERRITARREI EUSKARA IKASTAROAK BURUTZEKO DIRU-LAGUNTZAREN OINARRIEN ONESPENA, HALA BADA



ALKIZAKO UDALA

Alkate-Lehendakari jaunak eskaturik Udaleko Idazkari-Kontuhartzaile andereak 2024-2025 ikasturterako Alkizako biztanleentzat euskara ikastaroak burutzeko diru-laguntzak arautzen dituzten oinarrien zirriborroa prestatu du.

Zirriborroa banatu ondoren eta gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- 2024-2025 ikasturterako Alkizako biztanleentzat euskara ikastaroak burutzeko diru-laguntzak arautzen dituzten oinarriak onartzea.

BIGARRENGOA.- Aipaturiko deialdia jendaurrean jartzea.

BIGARRENGO PUNTUA

TOLOSAKO HILTEGI MANKOMUNATUARI 2023 URTEARI DAGOKION EKARPENA ONARTU ETA BURUTZEA.

Ikusirik Tolosaldeko Hiltegiko Mankomunitateak 2023ko abenduaren 11an egindako bilkuran, aho batez erabaki zuela, Mankomunitateko kide diren Udalek egin beharreko ekarpena, ondorioz, Alkizako Udalarari 269,00 euroko ekarpena egitea suposatzen dio.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosaldeko Hiltegi Mankomunitateari 2024 urteari dagokion ekarpena onestea eta burutzea, 269,00 euroko diru kopuruan. Ordainketa hau 2024ko Udal aurrekontuetako 421.431.00.01 partidaren kargura egingo da.

BIGARRENA: 269,00 euroko gastua onestea.

HIRUGARRENGO PUNTUA

2024/2025 IKASTURTEAN, ALKIZAN, "ADINEKOENTZAKO ONGIZATE FISIKO, MENTAL ETA EMOZIONAL IKASTAROAK" ESKAINTZEKO ZERBITZUA EMATEKO ESLEIPENA, HALA BADA.



ALKIZAKO UDALA

Kontuan hartuta Alkizako udalerrian 2024-2025 ikasturtean zehar garatuko diren ekintzak eta izena emantakoen kopurua ikusirik,

Ikusirik 2017ko SPKLaren 62. artikuluan ezarritakoaren arabera kontratazioko organoak kontratuaren arduraduna izendatu behar duela.

Ikusirik Kontratu txikia dela, SPKLren 131.3. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta luzaezina den urte beteko iraupena duela, aipatu Legearen 29.8. artikulua arabera.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Irati Apaolaza Artieda andereari esleitzea, Alkizako herrian 2024/2025 ikasturterako "Adinekoentzako ongizate fisiko, mental eta emozionala" klaseak eman ditzan. Guztira, 2.400-€ kopuruko gastua izanik.

2024ko ekitaldiari dagokionez, udal aurrekontuko 226.340.00.06. kontu-sailetik finantzatuko da, eragindako etorkizuneko ekitaldietan dagozkion kredituak gordetzeko hitza hartuz.

BIGARRENA: Irati Apaolaza Artieda anderearekin, zerbitzu emakidarako administrazio-kontratu bat sinatzea 2024-2025 ikasturtean zehar, 2024ko azaroaren 6tik 2025ko ekainaren 18ra arte, horretarako egokitutako udalaren lokaletan "Adinekoentzako ongizate fisiko, mental eta emozionala" eskolak emateko, ordu bakoitzeko 50 euroko prezioagatik.

HIRUGARRENA: Emango den ikastaroko orduak 2024-2025 ikasturterako ekintzen programazioan Udaleko Kultura batzordeak finkatutakoak izango dira, eta printzipioz, ordu horiek ikasturte guztirako 32 klasekoak izango dira. Hori guztira, 2.400-€ inguruko kontratazioko aurrekontu bat da.

LAUGARRENA: Kontratuaren arduraduna Udaleko kultura dinamizatzailea izendatzea.

BOSTGARRENA: Ordainketa, faktura aurkeztutakoan egingo da. Faktura egin beharko da indarrean dagoen legediak zehazten duen bezala eta lana jasotzen duen unitatea, edo, hala balegokio, kontratuaren



ALKIZAKO UDALA

arduraduna ados egonda. Zerbitzua eman dela egiaztatzen duen agiria onartu ondoren, 30 eguneko epean ordainduko da faktura.

SEIGARRENA: Ebazpen hau interesatuari jakinaraztea, dagokion errekurtsioak adieraziz.

LAUGARRENGO PUNTUA

2024/2025 IKASTURTEAN, ALKIZAN, TRIKITIXA ETA PANDERO IKASTAROAK ESKAINTZEKO ZERBITZUA EMATEKO ESLEIPENA, HALA BADA.

Kontuan hartuta Alkizako udalerrian 2024-2025 ikasturtean zehar garatuko diren ekintzak eta izena emantakoan kopurua ikusirik,

Ikusirik 2017ko SPKLaren 62. artikuluan ezarritakoaren arabera kontratazioko organoak kontratuaren arduraduna izendatu behar duela.

Ikusirik Kontratu txikia dela, SPKLren 131.3. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta luzaezina den urte beteko iraupena duela, aipatu Legearen 29.8. artikulua arabera.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Maixa Lizarribar Saizar andereari esleitzea, Alkizako herrian 2024/2025 ikasturterako trikitixa eta pandero klaseak eman ditzan. Guztira, 2.371,50€ kopuruko gastua izanik.

2024ko ekitaldiari dagokionez, udal aurrekontuko 226.330.00.99. kontu-sailetik finantzatuko da, eragindako etorkizuneko ekitaldietan dagozkion kredituak gordetzeko hitza hartuz.

BIGARRENA: Maixa Lizarribar Saizar anderearekin, zerbitzu emakidarako administrazio-kontratu bat sinatzea 2024-2025 ikasturtean zehar, 2024ko urriaren 7tik 2025ko ekainaren 16arte, horretarako egokitutako udalaren lokaletan trikitixa eskolak emateko, ordu bakoitzeko 45 euroko prezioagatik eta panderoko eskolak emateko prezioa 35 euroko prezioagatik.

HIRUGARRENA: Emango den ikastaroko orduak 2024-2025 ikasturterako ekintzen programazioan Udaleko Kultura batzordeak



ALKIZAKO UDALA

finkatutakoak izango dira, eta printzipioz, ordu horiek ikasturte guztirako 31klase eta 2 emanaldikoak izango dira. Hori guztira, 2.371,5 euro inguruko kontratazioko aurrekontu bat da.

LAUGARRENA: Kontratuaren arduraduna Udaleko kultura dinamizatzailerak izendatzea.

BOSTGARRENA: Ordainketa, faktura aurkeztutakoan egingo da. Faktura egin behar da indarrean dagoen legediak zehazten duen bezala eta lana jasotzen duen unitatea, edo, hala balegokio, kontratuaren arduraduna ados egonda. Zerbitzua eman dela egiaztatzen duen agiria onartu ondoren, 30 eguneko epean ordainduko da faktura.

SEIGARRENA: Ebazpen hau interesatuari jakinaraztea, dagokion errekursoak adieraziz.

BOSTGARRENGO PUNTUA
2024/2025 IKASTURTEAN, ALKIZAN, PILATESEKO IKASTAROAK
ESKAINTZEKO ZERBITZUA EMATEKO ESLEIPENA, HALA BADA.

Kontuan hartuta Alkizako udalerrian 2024-2025 ikasturtean zehar garatuko diren ekintzak eta izena emantakoen kopurua ikusirik,

Ikusirik 2017ko SPKLaren 62. artikuluan ezarritakoaren arabera kontratazioko organoak kontratuaren arduraduna izendatu behar duela.

Ikusirik Kontratu txikia dela, SPKLren 131.3. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta luzaezina den urte beteko iraupena duela, aipatu Legearen 29.8. artikulua arabera.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Nagore Errazkin Otaño andereari esleitzea, Alkizako herrian 2024/2025 ikasturterako pilates klaseak eman ditzan. Guztira, 2.430,00€ + (BEZa) kopuruko gastua izanik.

2024ko ekitaldiari dagokionez, udal aurrekontuko 226.340.00.06. kontu-sailetik finantzatuko da, eragindako etorkizuneko ekitaldietan dagozkion kredituak gordetzeko hitza hartuz.



ALKIZAKO UDALA

BIGARRENA: Nagore Errazkin Otaño anderearekin, zerbitzu emakidarako administrazio-kontratu bat sinatzea 2024-2025 ikasturtean zehar, 2024ko urriaren 3tik 2025ko ekainaren 26arte, horretarako egokitutako udalaren lokaletan pilates eskolak emateko, ordu bakoitzeko 54,45 euroko prezioagatik, (BEZa barne).

HIRUGARRENA: Emango den ikastaroko orduak 2024-2025 ikasturterako ekintzen programazioan Udaleko Kultura batzordeak finkatutakoak izango dira, eta printzipioz, ordu horiek ikasturte guztirako 54 izango dira. Hori guztira, 2.940,30 euro inguruko kontratazioko aurrekontu bat da (BEZa barne).

LAUGARRENA: Kontratuaren arduraduna Udaleko kultura dinamizatzailea izendatzea.

BOSTGARRENA: Ordainketa, faktura aurkeztutakoan egingo da. Faktura egin beharko da indarrean dagoen legediak zehazten duen bezala eta lana jasotzen duen unitatea, edo, hala balegokio, kontratuaren arduraduna ados egonda. Zerbitzua eman dela egiaztatzen duen agiria onartu ondoren, 30 eguneko epean ordainduko da faktura.

SEIGARRENA: Ebazpen hau interesatuari jakinaraztea, dagokion errekurtsioak adieraziz.

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 20:30etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.

